

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

949

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Euskal Kataforesis SA enpresari ingurumen-baimen bateratua emateko dena, Iurretako (Bizkaia) udalerrian, metalen tratamendua eta estaldura egiteko jarduera burutu dezan.

AURREKARIAK

2006ko azaroaren 30ean, Jose Ignacio Zuñiga Urrutia jaunak, Euskal Kataforesis SA enpresaren izenean eta enpresa bera ordezkatzuz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Iurretako udalerrian (Bizkaia) metalen tratamendua eta estaldura egiteko jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen:

- Oinarrizko proiektua (2006ko urria).
- Laburpen ez-teknikoa (2006ko urria).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Euskal Kataforesis SA enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, 1996ko maiatzaren 14koa. Baimen hori metalen tratamendua eta estaldura egiteko jarduera garatzeko eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak kolektorera isurketak egiteko baimena zuen, 2005eko abenduaren 12koa, eta Hondakin Geldoen Ekoizleen Erregistroan eman zuen izena 2004ko martxoaren 2an.

Beranduago, 2007ko azaroaren 23an, xede dugun proiektuaren eta Iurretako hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko udal txostena bidali zen.

2006ko abenduaren 5ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Iurretako Udalarari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari kontsultatu zien.

2007ko otsailaren 14an eta 2007ko irailaren 26an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko urriaren 16an osatu zen.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACION DEL TERRITORIO

949

RESOLUCIÓN de 25 de marzo de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de tratamiento y revestimiento de metales, promovida por Euskal Kataforesis, S.A. en el término municipal de Iurreta (Bizkaia).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 30 de noviembre de 2006, D. Jose Ignacio Zuñiga Urrutia, en nombre y representación de Euskal Kataforesis, S.A., solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de tratamiento y revestimiento de metales en el municipio de (Bizkaia). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

- Proyecto básico (octubre 2006).
- Resumen no técnico (octubre 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Euskal Kataforesis, S.A. tenía, entre otras, licencia de actividad de fecha 14 de mayo de 1996. La citada autorización se concedió para la actividad de tratamiento y revestimiento de metales. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a colector de 12 de diciembre de 2005 además de estar Inscrito en el Registro de Productores de Residuos Inertes, con fecha 2 de marzo del 2004.

Posteriormente se remite informe municipal relativo a la compatibilidad del proyecto con el planeamiento urbanístico de Iurreta, con fecha 23 de noviembre de 2007.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 5 de diciembre de 2006 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el órgano ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto, concretamente al Ayuntamiento de Iurreta, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia.

Con fechas 14 de febrero de 2007 y 26 de septiembre de 2007, el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 16 de octubre de 2007.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Euskal Kataforesis SA enpresak sustatutako proiektua, egoki irizitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak, 2008ko martxoaren 18an, txostena eskatu zien Iurretako Udalari, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoari eta Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetzari.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Euskal Kataforesis SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikulua ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluan arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua,

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Euskal Kataforesis, S.A. en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Bizkaia, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que no se han presentado alegaciones.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2008 informe al Ayuntamiento de Iurreta, al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia y a la Subdirección de Salud Pública de Bizkaia.

Con fecha 5 de marzo de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Euskal Kataforesis, S.A. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anexo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dis-

berau aplikatu daitezkeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearen. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Euskal Kataforesis SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, saneamendu sare nagusira isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzorua kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorritik.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezkatzeko jarduera sailkatu eta udal-lizentziaren prozedura, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzeko, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulua horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltegarri autonomia erkidego bakoitzean jardura sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Euskal Kataforesis SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidego Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Iurretako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da teknika onenen erabilera. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztu-ko azal-tratamenduen «Reference document on Best Available Techniques for Surface Treatment of Metals & Plastics» izeneko BREF agiria.

puesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Euskal Kataforesis, S.A. tales autorizaciones se circunscriben a la de producción de residuos peligrosos y no peligrosos, vertido a la red general de saneamiento y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre actividades molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Euskal Kataforesis, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Iurreta y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta el uso de las mejores técnicas disponibles. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF de tratamientos superficiales «Reference document on Best Available Techniques for Surface Treatment of Metals & Plastics», de agosto de 2006, de la Comisión Europea.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen proposamena sinatu eta Euskal Kataforesis SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikulua eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1eko, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Iurretako (Bizkaia) udalerriko Arriandi Industrialdea z/g duen eta IFK: A48716633 zenbakia duen Euskal Kataforesis SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Iurretako udalerrian metalaren tratamendua eta estaldura egiteko jarduera garatzeko, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 2.6 kategorian «Gainazalen tratamendua prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez (kubeten bol. edo lerro osoena >30 m³)».

Euskal Kataforesis SA enpresaren instalazioak Iurretako udalerrian (Bizkaia) daude. 2.113 m²-ko azalera betetzen dute, bi eremutan bereizita: ekoizpen-nabea eta nabe osagarria Instalazioaren ekoizpen-gaitasun zenbatetsia 2.250.000 m² da.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Euskal Kataforesis, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación y dada la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 5 de marzo de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Euskal Kataforesis, S.A. con domicilio social en la calle Polígono Industrial Arriandi s/n, del término municipal de Iurreta (Bizkaia) y CIF: A48716633, Autorización Ambiental Integrada para el Proyecto de tratamiento y revestimiento de metales, en el término municipal de Iurreta, con las condiciones establecidas en el apartado segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 2.6 «Tratamiento de superficies por procedimiento electrolítico o químico (vol. cubetas o líneas completas >30 m³)», del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La instalación de Euskal Kataforesis, S.A., se localiza en el municipio de Iurreta (Bizkaia), ocupando una superficie de 2.113 m² dividida en dos áreas: nave de producción y nave auxiliar. La capacidad de producción estimada de la instalación es de 2.250.000 m².

Euskal Kataforesis SA enpresaren jarduera orokorra pieza metalikoak kataforesi bidez margotzean datza. Hiru fasetan garatzen da pintaketa-prozesua:

– 1. fasea: gainazala prestatzea. Piezen gainazalaren egokitzapena egiten da, hainbat etapatan, pinturaren itsaspena hobetzeko. Koipe- eta olio-hondarrak kentzen dira fase honetan (tentsioaktiboen bidez koipe-gabetzeko bi etapetan), eta estaldura fosfatatu egiten da, korrosioaren kontrako babesarekin. Aspertsio bidez (dutxa-sistema) egiten da prozesua, tunel bakar bat erabiliz. Fase honetan egiten diren ikuzketei dagokienez, ur desmineralizatua erabiltzen da batean, piezen kanpoko gainazalaren gero daitezkeen gatzak kentzeko. Etapa batetik bestera interfaseak bereiz daitezke. Interfase horietan jasotzen da piezen xukatzea eta barruko bainura itzultzen da. Tunel osoa kanalizazio batek inguratzen du. Kanalizazio horri esker, hondakin-uren tratamendurako instalazioko homogeneizazio-putzurantz bideratzen dira isurketak.

– 2. fasea: pintatzea eta ondorengo ikuzketa. Inmertsioz pintatzen da pieza (KTL), 24 m³-ko upel batean. Piezak bastidoreetan jartzen dira, eta pinturaren erabat sartuta daudenean tentsio elektrikoa batera konektatzen dira. Horrela, pintura-partikulak elektro-jalkita geratzen dira margotu beharreko piezen gainazalean. Ondorengo ikuzketak piezek dakartzen pintura-soberakina berreskuratzeko egiten dira. Pintura-isurketak minimizatzen dira, ultrairagazketa-modulu baten bitartez (UFR) (gainera lehengaia aurrezteko lortzen da, birzikulazioari esker). Amaitzeko, ur desmineralizatua (ADR2) erabiltzen da beste ikuzketa batean, piezen disolbatzaile-hondarrak kentzeko eta estalduraren akaberan orbanak edo akatsak ekiditeko. Etapa honetan egiten den isurketa arazteko instalaziora kanalizatzen da.

– 3. fasea: lehortzea eta paketatzea (edo deskargatzea). Pintura labe batean lehortzen da (205-240° C). Labean aire beroa ematen zaio, gas naturalarekin elikatzen diren erregailuen bitartez. Behin piezak lehortu eta gero, deskargatu eta paketatzen dira.

Bestalde, ur desmineralizatua ekoizteko prozesu osagarri bat garatzen da, ioi-trukatze bidez instalaziotan. Ikatz aktiboa, erretxina kationikoa eta erretxina anionikoa duten zutabeak zeharkatzen ditu urak jarraian eta, ondoren, andeletan gorde eta bertatik ponpatzen da ekoizpen-prozesuko etapa desberdinetara. Erretxina kationikoa birsorteko azido klorhidrikoa erabiltzen da; sosa kaustikoa likidoa erabiltzen da, berriz, erretxina anionikoa birsortzeko.

Energia hornitzeko iturri gisa erabiltzen dira energia elektrikoa, gas naturala (ur beroaren galdarak elikatze bidez) eta gasolioa (barruko garraiobideak elikatze bidez).

La actividad general de Euskal Kataforesis, S.A. es el pintado de piezas metálicas mediante cataforesis. El proceso de pintado se divide en tres fases:

– Fase 1 de preparación de la superficie: consiste en el acondicionamiento en varias etapas de la superficie de las piezas metálicas para mejorar la adherencia de la pintura. En esta fase se eliminan los restos de grasas y aceites (dos etapas de desengrase mediante tensioactivos) y se aplica una fosfatación al recubrimiento de garantías anticorrosivas. Este proceso se realiza por aspersión (sistema de duchas), a través de un único túnel. Dentro de los lavados que se realizan en esta fase uno de ellos es con agua desmineralizada para eliminar las sales que puedan quedar sobre las superficies externas de las piezas. Entre las etapas existen interfases que permiten recoger el escurrido de las piezas y devolverlo al baño anterior. Todo el túnel está rodeado de una canalización que permite dirigir los vertidos hacia el foso de homogeneización de la planta de tratamiento de aguas residuales.

– Fase 2 de Pintado y lavado posterior: el pintado (KTL) se realiza por inmersión en una cuba de 24 m³. Los bastidores en los que van colocados las piezas, quedan conectados a una tensión eléctrica en el momento en que están totalmente sumergidos en la pintura, así las partículas de pintura quedan electrodpositadas sobre la superficie de las piezas a pintar. Los lavados posteriores se realizan para recuperar el exceso de pintura arrastrado por las piezas minimizando el vertido de pintura, a través de un módulo de ultra filtración (UFR) (ahorro a su vez de materia prima por la recirculación). Finalmente se requiere un lavado con agua desmineralizada (ADR2) para eliminar los restos de disolventes en las piezas, y evitar la aparición de manchas o defectos en el acabado del recubrimiento. El vertido proveniente de esta etapa se canaliza a la planta depuradora.

– Fase 3 de Secado y embalado (o descarga), en la que se lleva a cabo el secado de la pintura en un horno (205-240° C), se realiza en continuo mediante soplado de aire caliente en el horno cuyos quemadores se alimentan con gas natural. Una vez secas las piezas se descargan y embalan.

Además en la planta se lleva a cabo el proceso auxiliar de la producción de agua desmineralizada, realizada en dos plantas de intercambio iónico. El agua atraviesa sucesivamente columnas de carbón activo, resina catiónica y resina aniónica, y después se almacena en depósitos desde donde se bombea a las distintas etapas del proceso productivo. Para la regeneración de la resina catiónica se utiliza ácido clorhídrico y para la de la resina aniónica sosa cáustica líquida.

Como fuentes de suministro de energía se emplean energía eléctrica, gas natural (para la alimentación de las calderas de agua caliente) y gasóleo (para la alimentación de los medios de transporte interno).

Euskal Kataforesis SA enpresaren instalazioetan kontsumitzen den ura udal-saretik hartzen da eta honako puntu hauetan erabiltzen da nagusiki: bainuak prestatzea, ikuztea eta desmineralizazio-planta.

Instalazioan 3 isurketa-foku daude, hain zuzen ere: polimerizatze labekoa, aurretratamenduko bainuak berotzeko galdarakoa eta aurretratamenduko bainuen erazketakoa.

Instalazioan sortzen diren efluenteak honakoak dira: industria-urak, ur sanitarioak eta euri-urak. Kataforesi-prozesutik datozen industria-urak (deskoipeztatzea, ikuzketak eta ur desmineralizatua), ur sanitarioekin elkartu aurretik, araztegiaren tratatzen dira (tratamendu fisiko-kimikoa, honakoak barne hartuta: ponpatze-kutxeta, koagulazioa, neutralizazioa, malutapena, dekantagailua, lohi-kontzentragailua eta iragaztea). Ur sanitarioak, industria-ur araziekin elkartu ondoren, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sare orokorrera bideratzen dira. Euri-urak nabeen estalkitik eramaten dira industrialdeko euri-uren kutxeta arte, eta bertatik isurtzen dira Ibaizabal ibaira.

Honakoak sortzen diren hondakin nagusiak: araztegiako olio-lohiak, araztegi lohi urtsua, araztegi hondar-opilak, upelak garbitzean sortutako pinturak, trukatzeko ionikoko erretxina agortuak, ikatz aktibo agortua eta txatarra.

Proiektuan ondoren adierazitako Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) barne hartzen dira, «Referente Document on Best Available Techniques for Treatment of Metals and Plastics» erreferentziatzeko dokumentuan adierazitakoaren arabera: bainuak kutsatzea saihesteko diseinatuta dauden bastidoreak, turbulentsia hidraulikoa, prozesuko disoluzioak berotzea (bero-trukagailua deskoipeztatzean eta fosfatatzean eta erresistentzia elektrikoan kataforesi-upelean), ura egokitzea, ikuzketak turrustan, deskoipeztatze-bainuaren denbora luzatzea (bigarren bainuak lehenengoa ordezkatzeko du astean behin), prozesuko disoluzioak mantentzea (iragaztea eta elektrolisia pinturan), hondakin-uren tratamendua, airearen erazketa naturala (aurretratamenduko tunela) eta hozte-zirkuitu itxia.

Bigarrena.– Euskal Kataforesis SA enpresak Iurreta udalerrian (Bizkaia) sustatutako pieza metalikoak kataforesi bidez margotzeko jardura ustiatzeko, ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetza-ri eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Euskal Kataforesis SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

El agua consumida en las instalaciones de Euskal Kataforesis, S.A. proviene de la red municipal, empleándose principalmente en los siguientes puntos: preparación de baños, lavados y planta desmineralizadora.

La instalación cuenta con 3 focos de emisión correspondientes a: horno de polimerizado, caldera de calentamiento de baños de pretratamiento y extracción de los baños de pretratamiento.

Los efluentes generados en las instalaciones son: aguas industriales, aguas sanitarias y aguas pluviales. Las aguas industriales procedentes del proceso de cataforesis (desengrase, lavados y aguas desmineralizadas) previo a su unión con las aguas sanitarias se tratan en la depuradora de la planta (tratamiento físico-químico, que consta de: arqueta de bombeo, coagulación, neutralización, floculación, decantador, concentrador de lodos y filtración). Las aguas sanitarias tras su unión con las aguas industriales depuradas se dirigen a la red de saneamiento general del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia. Las aguas pluviales se conducen desde la cubierta de las naves hasta su conexión con la arqueta de pluviales del polígono, desde donde se vierten al cauce del río Ibaizabal.

Los principales residuos generados son los siguientes: lodos aceite depuradora, lodo acuoso depuradora, tortas depuradora, aguas de pintura de limpieza de cubas, resinas de intercambio iónico agotadas, carbón activo agotado y chatarra.

El proyecto incorpora entre otras las siguientes medidas que pueden considerarse Mejores Técnicas Disponibles (MTDs) según lo señalado en el documento de referencia «Referente Document on Best Available Techniques for Treatment of Metals and Plastics»: bastidores diseñados para impedir la contaminación de los baños, turbulencia hidráulica, calentamiento de soluciones de proceso (intercambiador de calor en desengrase y fosfatado y resistencias eléctricas en la cuba de cataforesis), acondicionamiento del agua, lavados en cascada, alargamiento del tiempo del baño de desengrase (el segundo baño reemplaza al primero una vez a la semana), mantenimiento de las disoluciones del proceso (filtración y electrodiálisis en la pintura), tratamiento de las aguas residuales, extracción natural de aire (túnel de pretratamiento) y circuito cerrado de refrigeración.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de pintado de piezas metálicas mediante cataforesis, promovido por Euskal Kataforesis, S.A. en el término municipal de Iurreta:

A) Euskal Kataforesis, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al responsable de las relaciones con la Administración.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Euskal Kataforesis SA instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezten. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen temperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Pieza metalikoak kataforesi bidez margotzeko jarduera, otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuan, abenduaren 22ko airea babesteko abenduaren 22ko 38/1972 Legea aldatzen duenean adierazitakoaren arabera katalogatu da.

B) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

B.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

B.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.1.1.1.– Condiciones generales.

La planta Euskal Kataforesis, S.A. se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución.

Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones.

Podrán exceptuarse de esta norma general aquellas emisiones no confinadas cuya captación sea técnica y/o económicamente inviable o bien cuando se demuestre la escasa incidencia de las mismas en el medio.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

B.1.1.2.– Identificación de los focos. Catalogación.

La actividad de pintado de piezas metálicas mediante cataforesis cuenta con los siguientes focos, catalogados de acuerdo con el Decreto 833/1975, de 6 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 38/1972, de 22 de diciembre, de protección de ambiente atmosférico:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barruko diametroa	Katalogazioa		UTM koordenatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	48003080-01	Polimerizatzeoko labea	4,5	0,5	B	2.12.1	527395,33	4781082,07
2	48003080-02	Aurretratamenduko bainuak berotzeko galdara	9,3	0,5	C	3.1.1	527395,33	4781082,07
3	48003080-03	Aurretratamenduko bainuak erazteza			C	3.12	527471	4781085

N.º foco	Código del foco	Denominación foco de emisión	Altura	Diámetro interior	Catalogación		Coordenadas UTM	
					Grupo	Epígrafe	X	Y
1	48003080-01	Horno de polimerizado	4,5	0,5	B	2.12.1	527395,33	4781082,07
2	48003080-02	Caldera de calentamiento baños pretratamiento	9,3	0,5	C	3.1.1.	527395,33	4781082,07
3	48003080-03	Extracción de los baños de pretratamiento			C	3.12	527471	4781085

3. fokuari dagozkion altuera eta barruko diametro adierazi behar dira (Aurretratamenduko bainuak eraztea).

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Se deberá aportar altura y diámetro interior del foco n.º 3 Extracción de los baños de pretratamiento.

B.1.1.3.– Valores límite de emisión.

La planta se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los siguientes valores límite de emisión:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	CO	500 ppm
	NO _x	300 ppm
	KOH (KOG bezala adierazia)	100 mgC/Nm ³
2	CO	500 ppm
	NO _x	300 ppm
3	Partikulen guztizkoa (PG)	30 mg/Nm ³
	Nikela (Ni)	-
	Zinka (Zn)	-
	Ázido fluorhidrikoa (HF)*	-

Foco(s)	Sustancias	Valores límite emisión
1	CO	500 ppm
	NO _x	300 ppm
	COVs medido como COT	100 mgC/Nm ³
2	CO	500 ppm
	NO _x	300 ppm
3	Partículas totales (PT)	30 mg/Nm ³
	Níquel (Ni)	-
	Zinc (Zn)	-
	Ácido fluorhídrico (HF)*	-

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko temperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

(*) Ebazpen honen C.1.b puntuan adierazten dena kontuan hartuta, BKEk atmosferan egindako neurketen txostenak erakusten dituen emaitzen arabera aztertuko da poluitzaile bakoitzari ezar dakioken muga.

Dichos valores están referidos a las siguientes condiciones: 273 K de temperatura, 101,3 kPa de presión, y gas seco.

(*) En función de los resultados que se obtengan del informe de mediciones a la atmósfera realizado por OCA según se indica en el punto C.1.b de esta Resolución, se estudiará el límite a adjudicar a dicho contaminante.

Kataforesi bidez piezen estaldura egiteko jarduerari dagokionez, % 25 da isurketa barreiatuen muga-balioa (disolbatzaileen sarrera-portzentajea).

Gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gaindituko arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetetz luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaeren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei (KOG bezala neurtuta) dagokienez, gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurketarako muga-balioak gaindituko, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak ez baditu gainditzen isurketarako muga-balioak, eta ordubeteko neurketek ez badituzte gainditzen isurketarako muga-balioak, 1,5 baino gehiagotatik.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximinek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinetan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an eman dako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoa, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

$L1 \geq 8D$ eta $L2 \geq 2D$ distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira $L1 < 2D$ eta $L2 < 0,5D$ balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen jatorria eta kokapena.

El valor límite de la emisión difusa (porcentaje de entrada de disolventes) para la actividad de recubrimiento por cataforesis será del 25%.

Los parámetros medidos no superarán los valores límite de emisión en inspecciones periódicas reglamentarias (tres medidas de una hora cada una, como mínimo) medidos a lo largo de ocho horas. Se admitirá como tolerancia de medición que puedan superar en el 25% de los casos en una cuantía que no exceda del 40%. De rebasarse esta tolerancia, el periodo de mediciones se prolongará durante una semana, admitiéndose, como tolerancia global de este periodo, que puedan superarse los niveles máximos admisibles en el 6% de los casos en una cuantía que no exceda el 25%. Estas tolerancias se entienden sin perjuicio de que en ningún momento los niveles de inmisión en la zona de influencia del foco emisor superen los valores higiénicamente admisibles.

En lo que se refiere a los COVs (medidos como COT), no superarán los valores límite de emisión en inspecciones periódicas reglamentarias (tres medidas de una hora cada una, como mínimo) si la media de todas las mediciones no supera los valores límites de emisión y ninguna de las medidas de una hora supera los valores límite de emisión en un factor superior a 1,5.

B.1.1.4.– Sistemas de captación y evacuación de gases.

Las chimeneas de evacuación de los gases residuales de los focos alcanzarán una cota de coronación, no inferior a la establecida en el apartado B.1.1.2. Las chimeneas dispondrán de los medios necesarios para el cumplimiento de las condiciones exigidas en la Orden del Ministerio de Industria, de 18 de octubre de 1976, sobre prevención y corrección de la contaminación atmosférica de origen industrial permitiendo, entre otros, accesos seguros y fáciles a los puntos de toma de muestras.

En particular, en lo que se refiere a la localización y características de los orificios previstos para la toma de muestras, las distancias del punto de muestreo a cualquier perturbación del flujo gaseoso antes del punto de medida según la dirección del flujo y dirección contraria (parámetros L1 y L2) deberán ajustarse a lo dispuesto en el anexo III de la Orden de 18 de octubre de 1976.

Para los focos en los que no se cumplan las distancias de $L1 \geq 8D$ y $L2 \geq 2D$, nunca se admitirán valores de $L1 < 2D$ y $L2 < 0,5D$. En estos casos se exigirá que en el informe de mediciones se justifique la validez del plano de muestreo.

B.1.2.– Condiciones para el vertido a la red de saneamiento.

B.1.2.1.– Origen y localización de los vertidos.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	UTM koordenatuak
1	Industria-urak	Kataforesi-prozesuko industria-urak (deskoipeztatzea, ikuzketak eta ur desmineralizatua)	Saneamendu-sare orokorra (Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa)	X: 527.489 Y: 4.781.079

Punto de vertido	Tipo de aguas residuales	Procedencia del vertido	Medio receptor	Coordenadas UTM
1	Aguas industriales	Aguas industriales del proceso de cataforesis (desengrase, lavados y agua desmineralizada)	Red de saneamiento general (Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia)	X: 527.489 Y: 4.781.079

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: kataforesi-prozesuko industria-urak (deskoipeztatzea, ikuzketak eta ur desmineralizatua).

Orduko puntako emaria	4,5 m ³ /h
Eguneko batez besteko balioa	62 m ³ /egun
Urteko gehienezko bolumena	13.297 m ³ /urte

B.1.2.3.– Gehienez igor daitekeen kutsatzaile-kantitatea.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera doazen isurketei buruzko araudian agertzen diren mugak eta baldintzak bete behar ditu akaberako isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztaperen, aldaketa edo salbuespenekin. Horrez gain, zink, berun eta nikelaren parametroen kasuan honako muga hauek bete beharko dira:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Zinka	2 mg/l
Beruna	0,5 mg/l
Nikela	2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak espedienteko enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirietara. Funtsean araztegi bat da (7 m³/h tratamendu-gaitasuna) eta kataforesi-prozesuko ura jasotzen du (deskoipeztatzea, ikuzketak eta ur desmineralizatua); behin ur hori arazi ondoren, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera isurtzen da. Araztegi honako osagai hauek bereiz daitezke:

– Ponpatze-kutxeta: instalazioko industriako hondakin-ur guztiak biltzen ditu eta zolatarekiko beheratuta dago.

B.1.2.2.– Caudales y volúmenes máximos de vertido.

a) Vertido 1: aguas de industriales procedentes del proceso de cataforesis (desengrase, lavados y agua desmineralizada).

Caudal punta horario	4,5 m ³ /h
Valor diario medio	62 m ³ /día
Volumen máximo anual	13.297 m ³ /año

B.1.2.3.– Valores límites de emisión.

El vertido final deberá cumplir los límites y condiciones que figuran en el Reglamento de vertidos a colector del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, con las precisiones, modificaciones o salvedades que dicho Organismo pueda considerar. Además deberán cumplirse para los parámetros zinc, plomo y níquel los límites siguientes:

Parámetros	Valores límite de emisión
Zinc	2 mg/l
Plomo	0,5 mg/l
Níquel	2 mg/l

No podrán utilizarse técnicas de dilución para alcanzar los valores límites de emisión.

B.1.2.4.– Instalaciones de depuración y evacuación.

Las instalaciones de depuración o medidas correctoras de las aguas residuales se ajustarán a la documentación presentada por la empresa peticionaria que obra en el expediente y constarán básicamente de una planta depuradora de 7 m³/h de capacidad de tratamiento, que recibe el agua del proceso de cataforesis (desengrase, lavados y agua desmineralizada), que una vez depurada se vierte al Colector del Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia. Dicha planta depuradora está compuesta por:

– Arqueta de bombeo: depósito que recoge todas las aguas residuales industriales de la planta, situado a una cota inferior a la solera.

– Koagulazio-modulua: 1 m³-ko andel zilindriko batean egiten da.

– Neutralizazio-modulua: 1 m³-ko andel zilindriko batean egiten da eta karea prestatzeko 500 dm³-ko andel zilindriko bat du.

– Malutapen-modulua: 0,5 m³-ko andel zilindriko batean egiten da. 0,1 m³-ko andel batean dago polielektrolitoa.

– Dekantagailua: 18,9 m³-ko bolumena; ura goitik irteten da lohiak behetik.

